BESTELAKO XEDAPENAK

ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

4884

EBAZPENA, 2012ko urriaren 15ekoa, Garraio Azpiegituraren zuzendariarena, Donostialdeko Metroaren eraikitze-proiektuak –Kontxa-Morlans tartea– erasandako ondasun eta eskubideen zerrenda jendaurrean erakusteko dena.

Garraio Azpiegituraren zuzendariaren 2012ko uztailaren 6ko Ebazpenaren bidez, Donostialdeko Metroaren eraikitze-proiektua –Kontxa-Morlans tartea– onartu zen.

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2012ko ekainaren 11ko Aginduaren bidez, Gipuzkoari dagokionez, behin- behinean onartu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sarearen Lurraldearen Arloko Planaren aldaketa. Bada, aldaketa horretan, honako trazaketa berri hau ezartzea aurreikusten da: Donostiaren erdialdean zehar, Euskotrenek ustiatutako trenbideko Lugaritz eta Anoetaren arteko trazaketa, alegia.

Proiektuan den Donostialdeko Metroa izeneko metropoli-garraio sistema berriaren parte da aipatu soluzioa.

Garraio eta Herri Lanetako sailburuordearen 2012ko apirilaren 27ko Ebazpenaren bitartez behin betiko onartutako informazio-azterlana zenbait eraikuntza-proiektu espezializatutan banatu da, eta horitarikoa da Kontxa-Morlans tartea dagokiona.

Eraikuntza-proiektuaren mailan, honako hauek definitzea da proiektu honen helburua: Kontxaren eta Morlansen arteko tartean, Donostialdeko metro berria ezartzeko egin beharreko obrak.

Eraikuntza-proiektuak honako hauen definizioa eta balorazioa jasotzen ditu: azpiegituraren obra zibila; Erdialdea-Kontxako eta Easoko geltokiak; eta proiektua gauzatzen eta ustiatzen den bitartean, zerbitzuei eta aldeei zertan eragiten zaien, behin-behinean edo betiko.

Proiektuaren eraginpeko lurrak eskuratu, eta ondasunak eta eskubideak behar bezala kudeatu ahal izateko, proiektuan jaso egiten dira ondasun horiek guztiak identifikatzeko zerrenda zehatza eta partzela-planoak.

Organo honek eskumena dauka Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumeneko trenbide-azpiegituretako obrak egin ahal izateko nahitaezko desjabetze-jardunbideko izapideak egin eta ebazpenak emateko, hala ezartzen baitu Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 24ko 607/2009 Dekretuaren –azaroaren 30eko 328/2010 Dekretuaren bidez aldatua– 15.h) artikuluak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuaren 10.1.e) artikuluari dagokionean. Dekretu hori urtarrilaren 18ko 6/2011 Dekretuaren bidez bigarren aldiz aldatu zen.

Trenbide Sektorearen azaroaren 17ko 39/2003 Legearen 6.2 artikuluaren arabera, trenbide-linea berriak jartzeko edo lehendik daudenak handitu edo zabaltzeko proiektuak onartzen direnean, eta onespen horretan okupatu beharreko ondasunak zehaztuta badatoz, nahitaezko desjabetzeko eskakizunen eta jardunbidearen ondorioetarako, onespenak berekin dakar proiektua bera eta horren gaineko aldaketak herri-onurakotzat edo gizarte-interesekotzat jotzea, eta proiektuarekin

batera doan zerrendan jasotako ondasun eta eskubideak lehenbailehen okupatu beharrekotzat aitortzea.

Nolanahi ere, proiektua onartzeak inplizitoki berekin dakarren arren proiektuaren eraginpeko ondasunak eta eskubideak okupatu beharra, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 17.2, 18 eta 19.2 artikuluek ondasun eta eskubide horien xehetasunak jasoko dituen zerrenda egin eta jendaurrera atera behar dela ezartzen dute, alegazioak eta datuak aurkeztu ahal izan daitezen, okerrak zuzentzeko eta interesdunak zeintzuk diren ondo zehazteko.

Beraz, aipatutako xedapenak, horiekin bat datozenak eta aplikatu beharreko gainerakoak ikusirik,

EBAZTEN DUT:

«Donostialdeko Metroaren eraikitze-proiektua. Kontxa-Morlans tartea» proiektuak erasandako ondasun eta eskubideen zerrenda jendaurrean erakustea, ebazpen hau azkenekoz argitaratu eta biharamunetik aurrera hamabost (15) egun balioduneko epean alegazioak aurkeztu ahal daitezen, okerrik baldin badago zuzentzeko, hala ezartzen baitute Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 19.2 artikuluak eta horrekin bat datozenek. Alegazioak Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saileko Garraio Azpiegituraren Zuzendaritzan aurkeztu beharko dira (Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz).

Epe horretan, ondasun eta eskubideen zerrenda Donostiako udaletxeko iragarkien oholean ere jarrita egongo da, nahi duenak ikusteko.

Eta horrela jakinarazten da jendeak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko urriaren 15a.

Garraio Azpiegituraren zuzendaria,
JESÚS MARÍA BENAITO VILLAGARCÍA.

Donostiako udalerria:

Finka zenbakia: 20-0697-001.

Katastro-erref.: Bidea/herri jabaria.
Jabea: Donostiako Udala.
Okupazio iraunkorra: OI 0 m²/MI 424 m².
Aldi baterako okupazioa: ABO 0 m²/ABM 8695 m².
Zortasuna: ZO 0 m²/ZM 2372 m².
Planoen izena: MP-01/ MT-01 / ST-01.
Izaera: hiri-lurra.

Finka zenbakia: 20-0697-002.

Katastro-erref.: 8296041/165098-N.
Jabea: Gipuzkoako Foru Aldundia.
Okupazio iraunkorra: OI 130 m²/MI 0 m².
Aldi baterako okupazioa: ABO 0 m²/ABM 0 m².
Zortasuna: ZO 0 m²/ZM 0 m².
Planoen izena: OP-2.
Izaera: hiri-lurra.

Finka zenbakia: 20-0697-003.

Katastro-erref.: Trenbide sistema/jabari publikoa.
Jabea: Eusko Jaurlaritza.
Okupazio iraunkorra: OI 0 m²/MI 0 m².
Aldi baterako okupazioa: ABO 0 m²/ABM 0 m².
Zortasuna: ZO 0 m²/ZM 746 m².
Planoen izena: ST-2.
Izaera: hiri-lurra.